ARTISTS AS CATALYSTS

'Artista guztiek dute elkarren antza. Artea baino sozialagoa, lankidetzan oinarrituagoa eta errealagoa den zerbait sortzearekin egiten dute amets'

'Todos los artistas se parecen. Sueñan con hacer algo que resulte más social, más colaborativo y más real que el arte en sí mismo'

'All artists are alike. They dream of doing something that's more social, more collaborative, and more real than art.'

Dan Graham

Planteamendu horrek inspiratu du 'Artists as Catalysts' (Artistak katalizatzaile gisa) erakusketa, eta horrexek eman dio forma ekimen honen garapenari. 2013ko uztailaren 5tik irailaren 8ra bitartean ikusi ahal izango da AlhóndigaBilbao espazioan. Philippe Starckek berritu duen kultur instituzioaren zuzendaria den Lourdes Fernándezekin izandako lankidetzan, Ars Electronica Linz GmbH delakoak ohiko mugak gainditzen ausartzen diren proiektuak bildu ditu, artelan hauek ikusiko dituzten pertsona guztiak inspiratu nahian.

Erakusketa hiru gaitan banatzen da: Ingurua eta etorkizun iraunkorra, Gure mundu mediatizatuaren kontrola eta manipulazioa, eta Aurkitu zeure ahotsa eta hitz egin. Gai horiek guztiak gaurkotasun handikoak dira, eta gure planetaren eta gizartearen etorkizunerako ere funtsezkoak izango dira.

Erakusketa honetan aurkeztutako lanak erronka bat dira gure pertzepzioetarako; norgehiagoka bat sorrarazten dute eta harritu egiten gaituzte; izan ere, zalantzan jartzen dituzte hainbat gai (esate baterako, arlo pribatuaren eta publikoaren esparruak, edo zainketa eta kontrola), eta, modu horretan, prozesu natural eta artifizialak sartzen dira, gero prozesu artistiko bihurtzeko. Hori horrela ere, artelan hauen instalazioek berariaz eskatzen diete bisitariei parte hartzeko. Artistak eta euren artelanek katalizatzaile gisa jokatzen dute, eta, modu horretan, diskurtsoak piztu nahi dira, zalantzak eta gaiak kontuan hartzeko modu berritzaileak eskaintzen dira, bideak irekitzen dira, eta berrikuntzaz betetako eguneratzeak eta hobekuntzak jaurtitzen dira. Ikusleei gonbidapen adeitsua egiten zaie norgehiagoka honetan inplikatu daitezen, arazo hau modu aktiboan arakatu dezaten, eta erantzunak bila ditzaten, baina galdera berriak planteatzeari utzi gabe. Erakusketa eta berau osatzen duten artelanak hasiera bat dira, lehenengo urrats bat. 'Hitz egin' ez da soilik erakusketa honetako gaietako bat; aitzitik, ekintzarako dei gisa interpretatu behar da modu literalean.

Nazioartean ospe handia duten artisten 12 artelan daude ikusgai. Hauek dira aipatutako artista horiek: Seiko Mikami, Julian Oliver, Danja Vasiliev, Paolo Cirio, Alessandro Ludovico, Manu Luksch, Matthew Gardiner, Ehu Zarata, Daan van den Berg, Eric Paolos, Cesar Harada eta Finnbogi Pétursson. Artelan horietako batzuek denboratxoa daramate aztoramendua sortuz artearen munduan; beste batzuk, aldiz, guztiz berriak dira. Instalazio hauetan, artistek euren izatean aurkitzen dute adierazpidea, ahotsa altxatuz. Hori guztiori dela eta, esan genezake diskurtsoa ez dela modu anonimoan zuzentzen; topaketa orok, ideia orok, aurpegi propioa erakusten du.

Erakusketa honen helburua da artistek katalizatzaile gisa aritzeko dituzten modu ugariak erakustea, eta sorrarazten dituzten erreakzioen berri ematea. Artistak entzima katalizatzaileak izango lirateke, gure garaiko proteina intelektualak. Funtsezko gaiak isurtzen dituzte, eta euren prozesuek erronkak planteatzen dituzte, gure pertzepziorako modu berritzaile eta interesgarrian.

AlhóndigaBilbaoko erakusketa 2013ko uztailaren 5tik irailaren 8ra bitartean bisitatu ahal izango da.

Este planteamiento ha inspirado la muestra 'Artists as Catalysts' (Artistas como catalizadores), y ha dado forma a su desarrollo; podrá admirarse entre el 5 de julio y el 8 de septiembre de 2013 en el espacio AlhóndigaBilbao. En colaboración con Lourdes Fernández, directora de la institución cultural que acaba justamente de ser reformada por Philippe Starck, Ars Electronica Linz GmbH ha reunido una representación de proyectos que se atreven a trascender los límites convencionales en un esfuerzo por inspirar a todos aquellos que contemplen estas obras.

La muestra se divide a su vez en tres temas titulados Entorno y futuro sostenible, Control y manipulación de nuestro mundo mediatizado y Encuentra tu voz y exprésate, cuestiones en sí todas ellas de una gran relevancia actual, con temas que también van a ser de vital importancia para el futuro de nuestro planeta y de nuestra sociedad.

Las obras presentadas en esta exposición son un reto para nuestras percepciones; provocan una confrontación y nos sorprenden, poniendo en tela de juicio temas tales como las esferas de lo privado y lo público o la vigilancia y el control, incorporando procesos naturales y artificiales que son reconfigurados en procesos artísticos, en cuya instalación se está pidiendo a los visitantes expresamente que participen. Los artistas y sus obras actúan como catalizadores que pretenden desencadenar discursos, aportar formas novedosas de consideración de cuestiones y cosas, abrir canales y lanzar actualizaciones y mejoras cargadas de innovación. Se invita cordialmente a los miembros del público a que se impliquen en esta confrontación, a que escruten activamente esta problemática, a que busquen respuestas sin, asimismo, dejar de plantearse nuevas preguntas. La muestra y las obras de arte que la componen son, en sí mismas, un comienzo, el primer paso. 'Exprésate' no es únicamente un tema de esta muestra; debe interpretarse literalmente como una llamada a la acción.

Se exhiben 12 obras de artistas internacionalmente aclamados, a saber: Seiko Mikami, Julian Oliver, Danja Vasiliev, Paolo Cirio, Alessandro Ludovico, Manu Luksch, Matthew Gardiner, Ehu Zarata, Daan van den Berg, Eric Paolos, Cesar Harada y Finnbogi Pétursson. Algunas de dichas obras ya llevan un tiempo suscitando agitación en el mundo del arte; otras son totalmente novedosas. En estas instalaciones, los mismos artistas encuentran su expresión en su condición, alzando su propia voz. Por todo ello podemos afirmar que el discurso no se dirige de forma anónima; todo encuentro, toda idea desvela un rostro propio.

El objetivo de esta exposición es mostrar la gran diversidad de modos en los que los artistas funcionan como catalizadores, y las reacciones que suscitan. Los artistas serían estos enzimas catalizadores, las proteínas intelectuales de nuestro tiempo. Destilan temas esenciales y revelan procesos que plantean un reto de una forma novedosa e interesante a nuestra propia percepción.

La muestra de AlhóndigaBilbao podrá visitarse del 5 de julio al 8 de septiembre de 2013.

This insight inspired 'Artists as Catalysts' and shaped the development of this exhibition running from July 5 to September 8, 2013 at AlhóndigaBilbao. In collaboration with Lourdes Fernández, director of the cultural institution that just underwent a Philippe Starck makeover, Ars Electronica Linz GmbH has assembled a showcase of projects that endeavor to transcend conventional boundaries in an effort to inspire those who behold them.

The exhibition is subdivided into three themes–Environment and Sustainable Future, Control and Manipulation of our Mediatized World, and Find Your Voice and Express Yourself–and thus, issues of pressing current relevance and matters that will also be of central importance to the future of our planet and our society.

The works on display here challenge our perceptions, affront and surprise us, call into question concepts like the private and public spheres, surveillance and control, subsume natural and artificial processes, and configure them into artistic processes in which installation visitors are expressly called upon to participate. The artists and their works function as catalysts that aim to trigger discourses, bring out new ways of considering things, open channels, and launch innovative upgrades and enhancements. Audience members are cordially invited to engage in this confrontation, to actively scrutinize these issues, to seek answers as well as new questions. The exhibition and the works of art that comprise it constitute a start, the first step. 'Express yourself' isn't just the theme of this exhibition; it's to be taken literally as a call to action.

On display are 12 works by internationally acclaimed artists: Seiko Mikami, Julian Oliver, Danja Vasiliev, Paolo Cirio, Alessandro Ludovico, Manu Luksch, Matthew Gardiner, Ehu Zarata, Daan van den Berg, Eric Paolos, Cesar Harada and Finnbogi Pétursson. Some of these pieces have already been creating a stir in the art world; others are brand new. In these installations, the artists themselves have their say. Thus, the discourse isn't conducted anonymously; every encounter, every idea has a face.

The point of this exhibition is to showcase the highly diverse modes in which artists function as catalysts and the reactions they trigger thereby. Artists are these enzymes, the intellectual proteins of our time. They distill essential themes and reveal processes that challenge our perceptions in new and interesting ways.

The exhibition at AlhóndigaBilbao runs from July 5 to September 8, 2013.